

que superar el Dr. Junod para llevar a cabo su labor humanitaria y la diferente colaboración, escasa en el bando nacional, que contrasta con la buena disposición del bando republicano, en su tarea.

Sería prolijo relatar todos los episodios que pormenorizadamente y con excelente documentación relata el Dr. Samaniego (éxodo infantil del 37, caída de Barcelona, post-guerra, etc.). Igualmente he omitido el capítulo tercero dedicado a la formación de las Escuelas de Damas Enfermeras, la contribución de la Cruz Roja en la atención de los heridos en la guerra del norte de África y la situación de la institución durante la segunda república.

A modo de síntesis, sobre lo que nos quiere comunicar el Dr. Samaniego en este libro, dice lo siguiente: “Después de las desgracias narradas, aprendida la lección, todos debemos ser exigentes en el ámbito de progresar en la paz, reconciliación, espíritu dialogante, comportamientos humanitarios, abandono de los deseos de venganza, defensa de la libertad y los Derechos Humanos y otra serie de planteamientos éticos, que contribuyan a un mayor avance de nuestra civilización. Este complejo camino no puede ser recorrerse desde el olvido y menos aún desde la ignorancia, es necesario conocer y recordar” (p. 234).

Finalmente, quiero añadir que espero que a los futuros lectores les agrade, lo mismo que a mí, estas amenas e interesantes páginas de nuestra historia y de la historia de la institución que ha velado por el respeto de los derechos humanos a los combatientes heridos y que hoy, en tiempo de paz, realiza una labor social encomiable.

Pedro Gorrotxategi Gorrotxategi



SARASUA, Jon
Hiztunpolisa. Euskaltasunaren
norabideaz apunteak

Iruñea : Pamiela, 2013
365 or. ; 21 cm
ISBN: 978-84-7681-805-3

Hasierakoa

Nola goaz? eta nora goaz? galderak erdigunean jarri ditu Jon Sarasuak “*Hiztunpolisa, euskaltasunaren norabideaz apunteak*” izenburua duen bere liburuan. Diagnostikoa eta estrategia, euskalgintza zertan den eta zein norabide hartu beharko lukeen, bi arlo horiei buruzko pentsamenduak –“apunteak” izenburuan dioen moduan– azaldu dizkigu egileak, ia-ia erronka moduan.

Liburuaren aurkezpena Colombiako Nasa herriko esaera batekin abiatzen du: «hitza hutsa da ekintzarik gabe, ekintza itsua da hitzaren faltan, komunitatearen espiritutik kanpora hitza eta ekintza erio-bide dira» (9. or.). Ondo laburtzen du esaldi horrek liburuaren xedea eta forma. Hitza eta ekintza. Liburua hitza da, baina ia ekintza moduan burutua. Hizlari,

ekintzaile, bertsolari edota unibertsitateko irakasle, bada hori eta gehiago Sarasua. Baina liburu honetan bertsolaria gailendu zaio akademikoari, berak esan bezala bat-batean dago idatzia, «dokumentazio lanik gabe, ia aipu erreferentziaturik gabe» (9. or.).

Liburua bi atal nagusitan banatua dago. Lehena “atal organikoa” deitu du, eta bertan euskaltasunaren norabideaz halako gogoeta batzuk egiten ditu gaika, azken bost hamarraldiei eta egungo errealtateari begirada boteaz. Bigarrena “atal organikoa” deitu du, eta bertan organo zehatzei begira egindako gogoetak eta proposamenak luzatzen ditu zenbait arlotan zentratuz. Bestalde, egileak garbi uzten duen moduan, gaiari buruzko hausnarketa fokalizatzerakoan angelu batzuk lehenetsi ditu. Batetik, fokua eta arreta nagusia «hiztun komunitatearen erdiko gunean eta komunitate horren geruza antolatuan» jarri ditu, ez «egitura politikoari buruzko debetean». Bestetik, gehienbat «erantzukizun edo arduraren aldeari» begiratu dio, «ez hainbeste eskubideen aldeari, edo urraduren jatorri estrukturaleri» (11. or.). Oso garrantzitsua da hori kontuan hartzea liburua irakurtzerakoan, bertan egiten diren planteamenduak behar bezala kokatzeko eta ulertzeko. «Eztabaidarako material arriskatua izan nahiko lukeela» ere badio egileak liburuaren aurkezpenean, eta hala egin du, arriskatu egin da.

Liburuaren estiloan eta moldean egilearen bertsolari sena poetikoa igartzen da. Esan bezala, ez da estilo “akademikoa” idatzitako testua. Horrek badu bere alde ona, neurri batean freskotasunean eta hurbiltasunean irabazten duelako, agian irakurtterazago bihurtzen da eta publiko zabalagora iristeko aukera irekitzen du. Bada, halere, ulertzen ez dugun zenbait gauza. Bat, erreferentziak ez jasotzea: liburuan zehar hainbat egileren aipuak eta zitak egiten dira, baina ez da erreferentzia bibliografiko bat bera ere jasotzen. Zergatik ez eman irakurleari informazio hori? Bi, frogatu gabe egiten diren baieztapenak: testuan zehar hainbat baieztapen sendo eta aski gogor agertzen da, baina hainbatetan azaldu gabe egilea zertan oinarritzen den, zein funtsa erabiltzen duen baieztapen hori egiazen kategoriara eramateko. Ez al da arrisksua geroko planteamendu paradigmaticoak funtsatutako datuetan baino, iritzi mailako balorazio soiletan oinarritzea? Hiru, metaforen erabilera: testuan zehar metafora asko agertzen da, egileak aditzera eman nahi duena azaltzeko, eta horrek laguntzen du hainbat ideia berneratzen, baina agian gehiegia dira. Ez al dago metaforen lainoan galtzeko arriskua?

Bestalde, badira liburu honen diskurtsoaren narrazioan etengabe agertzen diren beste konstante batzuk irakurketa kritikoa batean gure ustez komentatu beharrekoak. Hau da, liburuak hausnarketa eta proposamen biziki interesgarriak ditu, positiboan azalduetakoak eta benetan aztertzea merezi dutenak, baina aldi berean baieztapen gisa jaurtikitako balorazio gogor eta negatiboak ere agertzen dira behin eta berriro. Hauek ez diete aurreko planteamendu positiboak balioa kentzen, baina garrantzitu egiten dute eta polarizatorako arriskua pitzen. Konstante horietako bat egileak ‘akademia’ deskalkifikatzeko agertzen duen grina litzateke, esate baterako honako hau dionean, «...albo-kalte bezala onartu beharko dugu hori: batzuk jakintza sortzeko beste zenbat dabiltzan *akademiar*en munduan ‘ezagutzaren’ errietuetatik biziz inoiz aitzur bat astindu gabe» (22 or.). Ez dugu ulertzen eraso horren zergatia, ez baitio inolako ekarpenik egiten liburuaren tesiari.

Liburuan agertzen den era honetako beste bigarren konstantea euskal mundu progresistaren eta ezkerrekoaren ibilbidean fokalizatuta etengabeko balorazio kategoriko negatiboa egiteko agertzen duen joera litzateke. Adibide gisa, horrela dionean pasarte batean: «oro har, gure euskal mundu progresista nahiko itxia dago posibilitateetatik ikastera, nahiko aldarte dogmatikoan hasi zen frankismoa bukaeran eta ././ beste posibilitateekiko mespretxuari eusten dio» (26 or.). Eta balorazio kategoriko horiek larriki bihur daitezke akusazio eta juzgu erantsia daramatenean eta gainera akusazioa frogatu beharrean ‘akusatuaren’ bizkar uzten dutenean beren ‘inozentzia’ frogatu beharra: «familia abertzale baten grabitate indarretatik erabateko autonomiaz pentsatzeko gaitasuna oraindik euskalgintzak frogatzeko dauka sektore batzuetan. Frogatzen ez duen bitartean, zaila izango da arlo batzuetan apustu estrategikoak lotzea» (179 or.). Galdera bururatzen zaigu, nor izango da gardentasunaren epaia emango duen epailea? Ildo beretik, baina oraindik ulergaitzago egiten zaigu balorazio kategorikoak bereizkeria kutsua hartzen duten baieztapenak egiten dituenegileak,

honako hau adierazten duenean esate baterako: «Euskalgintza ezker abertzalearen edo bloke soberanistaren idotik, senetik eta egiteko modutik gertu bizi duten pertsonak egotea ondo dago ./.. Baina euskararen espazio sinbolikoaren zentroa ez da beren lekua» (196 or.). Hitz hauek bazterkeria doinua hartzen dute, eta gure ustez horrek aurreko paragrafoan aipatu polarizatorako arriskua pitzen du. Hori noraino dator bat euskal hiztun komunitatea indartzearen liburuiko tesi nagusiarekin? Euskararen espazio sinbolikoa deitzen den horren zentroan ez al du lekurik bertan egon nahi duen euskal hiztun kontziente, jantzia eta eragile orok, edozein dela ere bere joera politikoa?

Liburuaren lehen atala: inorganikoa

Liburuaren lehen atalean, atal inorganikoa deitu duen horretan, hiztun komunitatearen egoera du mintzagai egileak. Hainbat gai aztertzen ditu 'angelu' jakin batzuetatik begiratu eta hausnarketa eginez. Horietatik guk ideia nagusi batzuk azpimarratu nahi izan ditugu.

Lehen ideia nagusia: paradigma berria behar da. Egilearen esanetan, egun eskura dugun eustazpi ideologikoak ez du "identitate kulturalaren gramatika" bat garatu, eta horrek «hizkuntzaren gaien *gap* bat sortzen du» (18 or.). Ideologia modernoaren markoan, eskubideak, berdintasuna, askatasuna, diskriminazio eza eta antzeko kontzeptuen inguruan egituratzen da hizkuntzaren gaiarekiko ikusmoldea. Baina egilearen ustez marko horrek ez du jada ematen hizkuntzaren gaiari ganoraz heltzeko, «nortasunaren gramatika bizigarririk ez du ekoiztu moder-nitateak» (18 or.) Eta, egun dauden diskurtsoek hizkuntza eta identitatearen problematika ulertu eta kudeatzeko aski ez direnez, paradigma berria eta sendoago bat behar da.

Bigarren ideia nagusia: hizkuntza-ekologiarena izan daiteke paradigma sendoxeagoa. Egilearen ustez hizkuntzen ekologiak baditu paradigma berria osatzeko oinarriak, erabat sendoa ez izan arren eta modako itxura hartzeko arriskua baldin badu ere. Sarasuak ekologia balio multzo eta hortik eratorritako zientzia gisa ulertzen du, bere hitzetan «ekologia etika bat da, eta haren oinarrian sortutako zientzia. Etikadun zientzia bat eta zientziadun etika bat». (19 or.). Horrek errealtatearen aurrean kokatzeko modu jakin batera garamatza, existitzen denari aitormen egitea eskatuko diguna, badenari erreberentzia eta zaintza. Ekologiaren abiapuntu etiko oinarriko hori, ideologia modernoek hizkuntzen gaia kudeatzeko dituzten blokeoen aurrean leiho bat irekitzen lagunduko luke. Hala ere, planteamendu hau onartzeak badu bere zailtasuna. Ekologiaren alde etikoarekin, aniztasunarekin eta antzeko balioekin, gehienok egon gaitezke alde, baina ekologiaren alde zientifikoak, ordea, «hizkuntzen habitata zaintzeko eta garatzeko bide politikoetara garamatza, politika hitzaren zentzurik zabalenean» (27 or.) Eta agian praktika politikoa horiek ez dira gero hain samurrak edota 'politikoki politak'.

Hirugarren ideia nagusia: etxearen eta suaren metafora. 'Etxea', «lurralde baten gainean ezartzen den botere-egitura instituzionala» litzateke eta 'sua', berriz, «hizkuntza komunitatea, kulturazko identitatearen jarraidura» (32 or.). Biak dira beharrezko egilearen esanetan, baina berak begirada bereziki suarengan jarri du, hiztun komunitatean eta beraren jarraiduran. Amets gisa ere azaltzen du metaforak biltzen duena: «Identitate kolektiboaren aldetik, nire ametsaren eta ahaleginaren erdigunea da hiztun komunitate honen katebegia bermez biziberritzea hurrengo belaunaldietan, hori ahalbideratuko duen polis-egoera batean» (44 or.). Suaren ikuspuntutik euskal arazoa deitzen den horren auzi gakoa hizkuntza komunitate baten jarraiduraren auzia da; bestalde, «hizkuntza komunitateen ikuspegi ekologiko batek gobernantza-jakintza behar du, pentsamendu soziologikoa, politikoa eta ekonomikoa» (45 or.). Guzti horretan 'boterea'rena funtsezko gaia da. Eta hiztun komunitatearen lehen politika, egileak dionez, sukaldea antolatzea izan behar du.

Laugarren ideia nagusia: hegemoniaren gaia. Bizi garen polisean hiztun komunitate bat baino gehiago, hau da, polisa eleaniztuna da. Garbi dago aniztasun hori asimétriko dela estatu-hizkuntzen, euskararen eta, esate baterako, etorkin hizkuntzen artean. Baina bada egileak aipatzen duen beste asimetría sustraiko bat, gure lurraldean hizkuntza asko baldin badago ere, «euskarak funtzio batzuk betetzeko lur hau bakarrik dauka» (45 or.). Horrek hege-

monien eta guneen gaira garamatza. Egileak garbi azaltzen du esparru geografikoaren gaiari ezin zaiola itzuri egin, eta itzuri egin ezean galdera garrantzitsu bat sortzen dela, hau da: «euskarari badagokio edo ez dagokio bere jatorrizko lurraldean funtzio batzuk nagusitasunez bete-tzea?» (95 or.). Bere esanetan, hizkuntzen dinamikak erakusten dute ustezko elebitasun orekatuak errealitatean desorekatzera jotzen duela, eta horregatik hizkuntzek 'hegemonia-guneak' behar dituzte. Beste kontu bat litzateke planteatzea «ea hegemonia-guneetan eta asimetrikoak sareztatutako hiztun komunitateak lurralde berean funtzionatzeko moduak bilatzeko gai izan ote gaitzkeen» (97 or.). Orea partzialak bila ditzakegula defendatzen du egileak, eta horretan hizkuntzek beren nagusitasun-guneak edota hegemonia-esparruak garatu berauetan funtzio espezifikokoak bete ahal izateko. Lurralde-espazio hegemonikoak, arnaguneak, nagusitasun-guneak, hegemonia-esparruak, dentsitate-guneak, .. landu beharreko kontzeptuak dira, ezin baita hegemoniaren gaia saihestu, egileak dioen moduan, «mintza gaitzezen hegemonia partzialak, hegemonia handiek edo hegemonia erlatibiza dezagun funtzio batzuetan, baina ez diezaigun iruzurrik egin gaiari» (97 or.). Eta hegemoniaren 'patata beroari' hiru bide proposatzen ditu Sarasuak: «1) Lurralde-hegemoniarik gabeko komunitate saretu izaten ikasi, 2) lurralde-hegemoniaren gaia politikoki planteagarria izan dadin epe luzeko estrategia bat landu, eta 3) 'lurralde' edo gune hegemoniko berriak sortu»(100 or.). Bere ustetan, hizkuntzaren inguruko estrategia gehientsuenak bil zitezkeen hiru hauen baitan.

Liburuaren bigarren atala: organikoa

Liburuaren bigarren atalean, atal organikoa deitu duen horretan, “zer egin” galderatik abiatzen da egilea, eta ekintzarako pentsamendua behar dugula azpimarratzen du, hau da: «ideia organikoak, antzizko ideiak, organoentzako ideiak» (157 or.). Zentzu horretan, liburuaren bigarren zatia honetan arlo jakinetan estrategia-mulzo batzuen inguruan zenbait hausnarketa egin eta proposamenak luzatzen ditu autoreak.

Egiten dituen planteamenduak egileak abiapuntuzko tesi “zapuztaile” batean oinarritzen ditu. Tesi horren arabera, «euskaldun koherente eta gaitu izateak gaur eta hemen ahalegina eskatzen du, eta hurrengo belaunaldian ere ahalegina eskatuko du, ‘nahimena’ eskatuko du, borondatea» (211 or.). Simple dirudien horrek, Sarasuaren ustez inplikazio handiak ditu paradigma pentsatzerakoan, euskaldun koherente eta kompetente izateak ez baitu hiritar estandar baten kondizio bera suposatzen, berarekin “nahimen-tentsio” bat baitarama. Zentzu horretan, egun euskalgintzan planteamendu nagusia den eta Sarasuak “normalizazioaren” paradigma deitzen duen eredu ez litzateke funtzionala izango hizkuntzaren norabidea pentsatzerakoan. Egilearen hitzetan: «normalizazioaren eredu horrek kondizio ez-estandar hori ez du serio hartzen, egoera estandararen desirarekin fikzio bat sortzen du eta normalizaziozko fikzio horren patroien arabera eraikitzen du hizkuntzaren paradigma. Normalizazioaren paradigmatik ez digu balio /./ ez dituelako antzematen gure kondizioaren benetako gako batzuk, eta etorkizuneko estrategia batzuk ez dituelako usaintzen horrela» (211 or.).

Beraz, eta egun euskaldun izatearen ezaugarri bat nahimena denez, nahimen-tentsio hori elikatzea izango da egilearen ustez hiztun komunitatearen zeregin behinenetakoa. Eta hori motibazioarekin lotzen du, motibazioa izango delakoan garabiderako gako nagusietakoa. Lau motibazio mota bereizten ditu: fluxu-motibazioa (jaso dugunetik izatea eta ematen segitzea), motibazio pragmatikoa (bizitzako funtzioak betetzeko balio izatea), nortasun-motibazioa (balio erantsia, euskarak ez bestek ematen didana), eta paradigma-motibazioa (euskarak bizitzearen hautua paradigma zabalago baten bulkadari lotua egotea).

Tesi edo planteamendu hori oinarri, egileak bere proposamen organikoa hariarkatzen du, eta, hasteko, edozein politikak hiru maila artikulatu behar dituela diosku. Lehena, etorkizuneko ikuspegiarekin zerikusia duen pentsamendua maila. Bigarrena, epeko helburuak kateatuko dituen estrategiarekin zerikusia duen pentsamendua maila. Eta, hirugarrena, jardun zehatzetan gauzatzeko ekintzak lotzarekin zerikusia duen pentsamen-

duaren maila. Bere ustetan, lehenean gabilza gehienetan urrien, «begiratu zabaleko pentsamendu organikoan eskas» (162 or.), eta galdera luzatzen du: zein dira hurrengo hamarraldietara begira arloz arloko estrategiak? Eta jakinik ez dela arinki erantzuteko galdera, horri buruzko “apunte batzuk” eskaintzera ausartzen da. Hona hemen guk azpimarratu ditugun pare bat ideia nagusi.

Lehen ideia nagusia: erakunde-egitura, organoa, behar da. Euskal hiztun komunitatea artikulatu eta indartu behar dela premisa baldin bada, nori dagokio hiztun komunitate horren gidaritz sinbolikoa? Ez da hutsala galdera. Egilearen esanetan, euskararen gizarte-erakunde (EGE) sareak hobeto osatzen du hiztun komunitatearen gidaritz sinbolikoa, eta bere esku egon behar du. Zergatik? Euskal Herrian indar berezia erakutsi du gizarte antolatuaren esparruak, eta «gizarte antolatuaren logika-ereduetatik sorturik (ez logika lukratibotik eta ez logika burokratikoetik), politika publikoetan eta merkatuan leku garrantzitsua betetzen duten errealitateak ditugu» (164 or.), azken mende erdian egituratu den euskalgintza modernoaren ere neurri handian gizarte antolatuaren oinarritu eta horren bidez indartu da berariaz sortutako mota guztietako erakundetan eta “berariazko izate-ahalegin antolatuaren”. Bigarren arazoia litzateke gizarte-erakundeek euskararen lurralde osoa hartzen dutela eta sare gisa mugen gainetik hurbileko erreferentzialtasun sinbolikoa erakutsi dezaketela.

Ahaztu gabe erakunde publikoek beren funtzioak dituztela eta gidaritz horren zati bat ere badagokiela. Bereizten jakin, onartuz eta partekatuz. Botere-kontrabotere inertiak gaindituz, Kontseilua kokatzen du hiztun komunitatearen gidaritz sinboliko partekatuaren funtzioan, arloan arloko EGEak artikulatuz esparruko estrategiak lantzeko, EGEen arteko loturak antolatuz eguneroko pragmatika garatzeko, eta eragile politikoaren aurrean interlokuzioa antolatzeko: «gidaritz, estrategia, lotura, ahotsa» (175or.).

Guzti honetan arrisku bat ikusten du, inertzia zaharrak ez gainditzea eta lehia berrietan murgiltzea. Hori gainditzeko, “estatu gai” moduan blindatzeko sakoneko akordio politikoa proposatzen du, bereziki familia politiko abertzaleen artean. Eta apustu politiko hori sustatzeko, egileraren ustez, euskalgintzari sinesgarritasuna irabaztea dagokio, «taupada autonomoaren sinesgarritasuna landu, diskurtso eta ibilbide propio batekin, familia politiko desberdinen aurrean. Horretarako, ziurrenik sinesgarritasun transbertsal handiko pertsonak behar dute gidatu euskalgintzaren itsasontzia. Pertsona horiez gain, une honetan ez daukan diskurtso beregaina mamitu behar du, lehia politiko abertzalea gainetik pasako duena, eta bi bloke abertzaleei konfiantza emango diena, argi utziko duena bere proiektu estrategikoak ez direla bataren edo besteren mesede politikorako izango» (179 or.). Horretarako bidea, arlokako pauso kualitatibo esanguratsuak amesteko eta estrategiak aztertzeako espazioak sortzea eta hizkuntza komunitatearen norabideari buruzko diskurtsoaren dentsitate maila aski sendoa egituratzea izango da, horrela EGEen Kontseiluak gidaritz, arlokako estrategia, lotura eta eragina antolatzeko baldintzak beteko ditu.

Bigarren ideia nagusia: subjektu eragileen masa kritikoa behar da. Egilearen esanetan, «hiztun komunitateko erdiko geruzen ahalmen soziopolitiko eta kulturala garatuko duten eragileen masa kritiko bat» (198 or.) osatu behar da hurrengo belaunaldiari begira. Subjektu soziolinguistiko eta politiko aktiboa gisa gorpuztuko den masa kritikoa izateko baldintzak sortu behar dira, eta horri begira une honetan erein egin behar da, horretan inbertitu eta ahalegina jarri.

Sarasuak “euskalgile” deitu ditu euskal hiztun aktibo izango diren pertsona eragile hauek, eta hiztun komunitatearen politika bideratzeko erdigunean kokatu ditu. Zailtasuna aitortzearekin batera, hiztun komunitatearen politika modu arrakastatsuan bideratzeko “polistikaren” arlo antolagarrietan bi gauza egin beharko litzatekeela dio: 1) hiztun-komunitatearen gizarte-erakundek indartu, lehen ideia nagusian esandakoaren bidetik, eta 2) gizarte eta politikako «gune eragileenetan sartu ahalik eta kopuru nahiz eraginkortasunik handienez» (200 or.). Hori egingo duen belaunaldia prestatu beharko litzateke formazio soziolinguistiko eta soziopolitiko eskainiz.

Bide horretan, bi prozesu antolagarri leudeke eskueran: 1) hezkuntza arautuaren alorreko eskola sareak eta, 2) hezkuntza ez formalaren alorrean euskalgintzako gainerako

erakundeen bidez gai honi heltzeko aukera dutenak, hala nola *Topagunearen* baitako herrietako euskara elkarteen bidez. Prestakuntza irekia, transmisioa landuko duena, amets-gela gisa funtzionatuko duena, eztabaida antolatuzko mekanismoak izango dituena, metodologiak eta bideak aztertuko dituena, ideologia eta aukerekiko irekia, esperientzia bibentzuala duten pertsonetikiko harremanari garrantzia emango diona, entzuteari eta gazteen ahotsari leku handia eskainiko diona, ekintzarako norabidea eraikiko duena.

Hezkuntza aratuak berezko funtzioa betetzen eta aparteko lana egiten ari bada ere, egilearen ustez eskolak ez ditu «prestatzen belaunaldi berriak euskal hiztun izateko behar dituzten baliabideetan» (218 or.), hau da, XXI. mende honetan euskal hiztun hiritar ez-estandarra izateak eskatuko dituen baliabideetan: arrazoibidezkoak, psikologikoak, jakintzazkoak, emozionalak, corpusezkoak edota espresiozkoak. Emaizta zein da? Gazteak agertzen zaizkigula hizkuntza minorizatu bateko hiztun izateak behar duen arrazoibidezko baliabide nahikorik gabe, sentimenetan atxikimendu-modu lausoarekin, nahiko bulnerable erdararen grabitate hegemonikoaren aurrean eta espresabide arloko gabezi eta desoreka handiekin.

Eskolak, noski, ezingo luke hau guztia konpondu, ez dago prestatua eta, gainera, ikusi beharko litzateke noraino dagokion baliabide horiek ematea. Baina eragile garrantzitsua da, eta formazioaren arloan hezkuntza erakundeei bagegokieke beren zatia, hiru arlotan bereziki: 1) Arrazoibidearen ingurukoa. Euskal hiztun izateko arrazoibidezko baliabide konzeptualak, jakintza soziolinguistikoa oinarrituak eta curriculum ekolinguistikoa landuak. 2) Hizkuntzaren kalitatearen ingurukoa. Mintzoaren ahalmena, sormena eta gozamina garatzeko baliabideak landuko dituena. 3) Kultura eta sorkuntza ingurukoa. Euskaltasuna kultur fluxu moduan transmititu eta gazteak sortzaile moduan kokatzeko baliabideak eskainiko dituena.

Eta eskolarekin batera zeregin honetan, eskolaz kanpo kokatzen diren euskararen gizarte erakundeak ere eginkizun eta planteamendu bateratuak bideratzen.

Liburuan egileak bere hausnarketak eta proposamenak luzatzen ditu beste zenbait arlori ere erreferentzia eginez, hala nola bertsoagintza, kulturagintza edota hedabideen esparrua. Baina horiek, beste baterako utzi beharko ditugu.

Amaierakoa

Liburu honi Jakin aldizkarian egindako iruzkinean Dabid Anautek (2014) dio une honetan aukeraketa egin beharko balu, gogoetarako oinarritzko 6-8 dokumentuen artean hautatuko lukeela Sarasuaren *Hiztunpolisa* liburua. Gu bat gatz Anautek esandakoarekin, eta oinarritzko eztabaidarako balizko dokumentuen zerrenda horri ekarpena egin eta osatzen hasteko, egun Euskal Herrian Sarasuarekin batera eragiletzan eta idazketan ari diren beste eragile batzuen zenbait lanen erreferentziak proposatzera ausartuko gara (bere hutsune guztiekin). Hona hemen: Altuna (2013) hizkuntza-ekologiaren gaien sakontzen, Bastarrika (2009) ikuspegi instituzionaletik, Mtz. de Luna (2013) diskurtso eta framing berria proposatzen, Odriozola (2011) analisi estrukturalen ikuspuntutik, eta Zalbide (2011) diglosiaren formulazio berriua aldarrikatzen.

Pentsamenduan sakonduz, ekintzari bidea egiteko.

Bibliografia

ALTUNA, B. *Hizkuntza-ekologiaren diskurtsoaren ideia nagusien bilketa. DiKoma Proiektua*. (Argitaratu gabeko txostena). Andoain: Soziolinguistika Klusterra, 2013.

ANAUT, D. "Egunen gurgpilean. Soziolinguistika". *Jakin Aldizkaria*, 201 (martxo-apirila 2014), 107-113.

BAZTARRIKA, P. *Babeli gorazarre. Bizikidetzarako hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra*. Irun: Alberdania, 2009.